

txintx arri



Espetxeko hausnarketak

El Duesoko espetxetik aterata, TXINTXARRI-rekin bildu da Rafa Diez / 6-7

Antzerkia zainetan

Ramon Agirrek *Putinen Guardasola* antzeztuko du igandean, Abend tabernan / 4

Bakea, bizikidetzaz eta memoria: Zinezikloa, Lasarte-Oriako Bizikidetzaz taldearen eskutik / 2

Intza Fernandezek Kontxako banderako azken txandan lehiatuko du igandean / 10



MATRIKULAZIOA ZABALIK

eman izena!

- Euskarako klaseak: A1, A2, B1, B2 eta C1.
- Aurrez aurreko eskolak.
- Autoikaskuntza.

Munnteri AEK euskaltegia

Geltoki kalea 17, behe, 20160 Lasarte-Oria • 943 37 28 63 • lasarte@aek.eus
www.munnteri.blogspot.com.es



Maixabel Lasa Bizikidetza lantzeko zine-zikloan izango da, *Glencree* ekimenari buruz solasean. TXINTXARRI

Bizikidetza, filmeen bitartez lantzen

Lasarte-Oriako Bizikidetza taldeak zine-zikloa antolatu du irailean zehar. Bakea, bizikidetza eta memoria landuko dituzte hiru jardunalditan. Filmez gain, solasaldiak ere izango dira, Maixabel Lasarekin eta Lourdes Zabalzarekin, esate baterako

Nerea Eizagirre

Hiru urte dira Lasarte-Oriako Bizikidetza taldea lanean hasi zenetik. Geroztik, Baketik eta Lasarte-Oriako Udalarekin batera hainbat ekitaldi sustatu ditu. Urtarrilean egin zuen hausnarketaren ostean, taldeak berak herritarrekin eta herritarrentzat ekintzak antolatzea erabaki zuen.

Bakea, bizikidetza eta memoria zine-zikloa dugu lehena. Saioak irailaren 12an, 14an eta 19an izango dira Antonio Mercero aretoan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Hiru gai

Era honetara, memoria Gerra Zibilean oinarritutako *Izarren*

argia filmaren eskutik landuko dute. Gainera, genero ikuspuntuari ere ukitu bat emango zaiola azpimarratu dute taldeko kideek.

80. hamarkadako gertakari latzak eta bakegintzan emandako pausoak aztertuko dira bigarren saioan *Oinatz galduak: 80. hamarkada* dokumentalarekin.

Buruntzaldeako euskaltegietan izen emateko epea zabalik da

Aurtengo matrikulazio epea zabaldu dute; Lasarte Oriako udal euskaltegian irailaren 15ean amaituko da izena emateko epea

Maddi Noriega

Euskara ikasteko tarte hartu nahi duen orok, aukera du ikastaroetan izena emateko. Buruntzaldeako euskaltegiek ireki dute matrikulazio epea. Asteazkenean eman zuten horren

berri Buruntzaldeako euskaltegietako ordezkariak, Urnietako Lekaio kultur etxean.

Lasarte-Oriako udal euskaltegian, irailaren 15ean amaituko da izen emate epea, eta Hernanikoan, berriz,

irailaren 22an. Gainontzean, AEK-ko euskaltegietan, irailaren 29ra arte izango da izena emateko aukera.

Ikasketa eskaintza zabala

Hasierako mailetatik C1 eta C2 arteko ikastaroak, autoikaskuntza, titulu ofizialak, eta beste zenbait eskaintza izango dituzte aurtengoan euskaltegiek. Horrekin batera, A1 eta A2, zein B1 mailako tituluak euskaltegietan bertan eskuratzeko aukera ere izango da.

Zine-zikloa

Irailaren 12a, asteartea

• Filma:

Izarren argia (Mikel Rueda, 2010)

Euskeraz, gaztelaniazko azpiztituluekin 1938an, Saturrarango emakumeen kartzelan Espainiako Gerra Zibilean jazotako ankerkeriak kontatzen dituen filma.

Irailaren 14a, osteguna

• Dokumentala eta solasaldia

Oinatz galduak: 80. hamarkada (Fermin Aio, 2016)

Gaztelaniaz

"Oinatz galduak" serieko dokumentala, 80. hamarkadako gertakariak ardatz dituena: GAL, Hiperkorreko atentatua, Gestopor la Paz-en jaiotza, Lemoizeko zentral nuklearra, IHESAren kolpea edo ETA PMren desagerpena, besteak beste.

Irailaren 19a, asteartea

• Dokumentala eta solasaldia

Glencree, (bake prozesua), elkarrekin egindako bidea (Maite Ibañez, 2013)

Gaztelaniaz

Indarkeria ezberdinen biktimen arteko topaketen esperientzia kontatzen duen dokumentala, 2007 eta 2012 bitartean egin zena.

Maixabel Lasa eta Lourdes Zabalzarekin solasaldia, Glencree ekimeneko partaideak biak

Azkenik, bizikidetza sustatzeko 2007 eta 2017 urte artean, aurrera eramane den *Glencree* ekimena izango da aztergai, *Glencree, (bake prozesua), elkarrekin egindako bidea* dokumentalari esker.

Dokumentalak indarkeria ezberdinen biktimen esperientziak erakusten ditu.

Solasaldia

Taldeko kideek aipatu dutenez, herritarrek haien ekarpenak egitea nahi dute, horregatik solasaldi txikia egingo da bi dokumentalen ostean.

Lehen eskuko esperientziak ezagutzeko aukera ere izango da azken saioan, Maixabel Lasa eta Lourdes Zabalza ekimeneko kideak bertan izango baitira. "Izaera ezberdinetako bi biktima ekarri nahi zan ditugu haien bizipenak kontatzeko", azaldu dute Bizikidetza taldeko lagunek.

IRAILAREN 12AN, 14AN ETA 19AN ANTONIO MERCERO ARETOAN DIRA SAIOAK



Euskaltegi zein udal ordezkariak, asteazkenean egindako agerraldian. TXINTXARRI

Guadalupeko Ama Birjinaren omenez, festa

Ekitaldiz beteriko jaiak ospatuko ditu Lasarte-Oriako Extremadura etxeak asteburuan. Guadalupeko Ama Birjinaren omenez, kultur ekitaldiak eta gastronomikoak izango dira, besteak beste. Igandera bitartean iraungo du festak

Maddi Noriega

Guadalupeko Ama Birjinaren eguna da irailaren 8a, eta festa egun handia izan ohi da Lasarte-Oriako Extremadura etxean. Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko festak ospatzen ditu urtero elkarteak, eta aurtengoan ere, festa egitarau zabala antolatuko du astebururako.

Atzo iluntzean, elkartearen atariko bandera igotzearekin batera eman zieten hasiera ospakizunei. Igandera bitartean, askotariko ekintzetan parte hartu ahal izango dute lasarteoriarrek.



Ekintzez beteriko asteburua antolatu du Extremeña etxeak, astebururako. TXINTXARRI

Egitaraua

Ostirala 8

- 18:00: Oaintxe in deu txarangaren emanaldia.
- 18:30: Extremadurako produktuekin pintxopotea
- 20:00: Extremadurari buruzko diaporama.
- 20:30: Manantial Folk, Makulu Ken, The Northagirres eta Paolo Solo Dj taldeen musika emanaldiak.
- 21:00: Extremadurako kaldereta, Jaizkibel plazan.

Larunbata 9

- 02:00: Extremadurako *miga*-k.
- 10:30: Pintura lehiaketa, 2KN kafetegian.
- 12:30: Extremadurako meza emango dute, Extremadura etxean, Ecos de Monfragüe taldeak lagunduta.

- 14:00: Herri bazkaria: paella, Jaizkibel plazan.
- 15:00: Karaokea.
- 17:30: Txokolatada haurrentzat.
- 18:00: JalguneExtrem; 'El carretin' jotarekin.
- 21:30: Bazkideen afari ofiziala, elkartearen.
- 00:00: Gau festa herrikoia, Ibai berriak taldearekin.

Igandea 10

- 12:00: Duende, Gitanillas eta Zambra taldeen emanaldia, Jaizkibel plazan.
- 14:30: Herri bazkaria: Extremadurako eltzekaria.
- 17:00: Bola joko txapelketa.
- 18:00: Guadalupeko Ama Birjina Donostiako koru eta dantza taldearen emanaldia
- 20:00: Jaien amaiera eta bandera jaitziera.

Udazkeneko ikastaroak aurkeztu ditu udalak

Ikasturte osoko eta hiru hilabeteko hainbat kurtsu jarri dituzte Lasarte-Oriako gazte eta helduen eskura

Txintxarri

Jesus Zaballos alkateak, Gazteria saileko arduradun Txus Alonsok eta Maite Iglesias Kultura arloko zinegotziak Manuel Lekuona kultura-etxea eta Gaztelekuko ikastaroak aurkeztu zituzten.

Ikasturte honetan, gitarra, breakdance eta shuffle eta eskola laguntza saioak izango dira Gaztelekuan. Azken hori doakoa izango da. Manuel Lekuona kultura-etxean, berriz, olio-pintura, gorputz-jarrera

hezkuntza, joskintza eta sabel-dantza.

Hiru hileko ikastaroei dagokionez, genealogia, sukaldaritza osasuntsua, mindfulness eta akuarela eskolak eskainiko dira Manuel Lekuona eta Gaztelekuan, ukelele eta jazz dantza.

Izen emateko epea irailaren 18an ireki eta irailaren 29an amaituko da. Inskripzioa egin edo informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Manuel Lekuona kultura-etxera edo Gaztelekura hurbildu behar da.



NEURE KABUZ

ANE LABAKA

(Ab)hustua

Abuztuan jaio nintzen, zein egunetan bizi diren ez dakitelako gertukoena ere zure urtebetetzeaz ahazten diren hilabete horretan, bat-batean modu misteriosuan zure etxe azpian aparkatzeko lekua topatzeak mirari izateari uzten dion garaian.

Abuztua hilabete hila da, hustua. Irratiak hiri eta herri (ia) guztietako festetan gertatutako eraso sexistak oihukatzen dizkigu, eta badirudi berri hauek ere dagoeneko ez direla hain mingarriak eguerdiko hamabietan pertsiana igo eta eguzkipean tostadak mermeladarekin gosaltzen ari zarenean.

Abuztua parentesi bat da, hutsarte bat. Abuztua bikotekidearekin (eta seme-alabekin, eta txakurrarekin) oporretara joateko garaia da. Eta oporretara joateko bikotekiderik ez badaukazu bakarrik sentitu arren publikoki inori ezer ez aitortzekoa.

Abuztuan pozik egotea dagokizu, edo zoriontsu zarela antzetzeta. Abuztuan beharrezkoa da bizipenak kolekzionatzea, umetan kromoak bezalatsu, iraila hasieran zurekin oporretara joan beharrean bikotekidearekin joatea nahiago izan duten lagunekin elkartzean zer kontatua izan dezazun. Itzuleran garrantzitsua da egin duzun bidaia izan dadila beste inork egin duena baino urrutiago, exotikoago, bota duzun parranda izan dadila beste inork egin duena baino luzeago, eroago, zure ohekideen zerrenda beste inorena baino beteago, anitzago...

Iraila hasi da eta -ago atzikiaren erabilera debekatzea aldarrikatzen dut. Itxi da parentesia. Animo.

Eskainitako elkartasun eta konpromisoagatik, eskertza omenaldia

Apoloni Otxandorena, Toñi Ruiz eta Luix Kastresana presoen senideek eskertza omenaldia jasoko dute bihar. Azken hamarkadetan, senide gisa eskaini duten elkartasunagatik eta konpromisoagatik egin nahi diete aitortza. "Eskertza publiko eta herritarra egin nahi zaio maitasun eta borroka eredu izan den

belaunaldi horri", azaldu dute antolatzaileek.

Zabaleta auzoko plazan egingo diete omenaldia. Horrez gain, beste zenbait ekintza egingo dituzte. 10:30ean, auzoko plazatik aterako dira, eta ibilaldia egingo dute, Argi eta Inakiren oroitarria. 11:30ean, berriz, hamaiketako eskainiko dute plazan. 12:30ean eskertza ekitaldia egingo da, plazan bertan. Ekitaldiekin amaitzeko, Otegi sagardotegian bazkalduko dute.



NOAOA
BIDAIAK

ABENDUAREN 3TIK 9RA
Noaok gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Ramon Agirre gonbidatu dute Xumela abesbatzakoek Lasarte-Oriara. TXINTXARRI

"Lasarte-Oriako kultur dinamika izugarria da, eredugarria"

RAMON AGIRRE AKTOREA

'Putinen Guardasola' antzezlanean arituko da Agirre, igandean. Umorearen eta musikaren bitartez, "ordubetez ongi pasatzeko" eskaintza luzatu du aktoreak.

Adrian Garcia

Nazioarteko zinemaldi ospetsuetan saritutako filmetan parte hartutakoa da Ramon Agirre (Donostia, 1954). Baina ez dio sekula uko egin herrietako antzezleku txikiek sortzen duten giroari. Lanpetuta eta hamaika proiektu esku artean izan arren, Lasarte-Orian izango da igandean, "ongi pasatzeko". *Putinen Guardasola* obra antzeztuko du, Inazio Tolosarekin batera, Abend garagardotegian, 19:00etan. Xumela abesbatzak antolatatu du

ekitaldia, ikasturtea "indarrez hasteko". Hilaren 18an hasiko ditu saioak abesbatzak. Obrarako sarrerak Jalgin eta Abend tabernetan daude salgai, hamar eurotan (bost eurotan eskuratu ahalko dituzte langabeek).

"PUTINEN GUARDASOLA' BEZALAKO ANTZEZLAN TXIKIEKIN ASKO GOZATZEN DUT"

Zerekin egingo du topo igandean Putinen Guardasola antzezlana ikustera joango denak?

Ordubetez ongi pasatuko du. Geroz eta jende gehiago etorri, are eta giro politagoa sortuko dugu.

Xentimorik gabe eta Kokakola eta barea obrak egin dituzue aurretik. Igandekoan ere, musika eta umorea uztatuko al dituzue?

Bai. Pertsonaiak mantetzentzen dira, izen eta guzti, baina istorioa aldatzen da. Munduan zehar bidaiatzen dugu, ereserki bat

nola sortzen den ikasteko, zer osagai izan behar dituen jakiteko. Aitzakia da Euskal Herriko ereserkia sortu nahi dugula.

Horren zaila al da Euskal Herriko ereserkia sortzea?

Izango da, zeren ez daukagu denon gustuko ereserkerik. Baina lasai, hemendik aurrera izango dugu. Gureak kontsensu handia izan du, eta lehendakaria ere nahiko pozik atera da. Hizkia zerbait aldatuko zukeen agian, baina gustura dago.

Non topatu duzue inspirazio iturria ereserkia sortzeko?

Leku askotatik. Ibili gara musikaren eta ereserkien funtsa bilatzen, bost kontinenteak zeharkatu ditugu, Chavela Vargasen bila joan ginen ere... Xaman batekin ere egon ginen, nahiz eta ez genion asko ulertu.

Azkenean, lortu dugu ereserkia. Abend garagardotegian antzeztuko duzue. Antzoki handiekin alderatuta, giro bereziagoa sortzen al da tabernetan?

Gure ikuskizunarentzat askoz hobea da taberna. Txikia izateak esan nahi du jende gutxiago kabitzen dela. Baina estutasun horrek ematen dio zerbait berezia. Gure ikuskizuna aurrez aurrekoa eta gertukoa da. Arazo tekniko batzuk izan ditzake tabernak, baina berotasun aldetik izugarria da. Gainera, jendeak tragoa du eskuan. Gurea kafe antzokia generoa da, horrela deitzen zaio.

Zineman eta telebistan bide luzea egin duzu, baina euskarazko herri antzerkigintza ez duzu inoiz alboratu.

Plazer hutsez egiten dut. Gertatu izan zait, pelikula ustez handi bat filmatu, eta, hurrengo egunean, Errezilera joan behar izatea, antzerki batera. Baina, zer da handia eta zer txikia? Plazer aldetik, horrelako antzezlanean asko gozatzen dut. Euskal Herria ezagutzeko balio izan dit. Gainera, gero eta herri txikiagoa, eta antolatzailea gero eta xumeagoa, orduan eta hobeto tratatzen zaituzte. Horrek asko balio du.

Goazen saioan ere parte hartu duzu, eta Lasarte-Oriako txokoetako umeekin egon zara.

"GEROZ ETA JENDE GEHIAGO ETORRI IKUSTERA, ORDUAN ETA GIRO POLITAGOA SORTUKO DUGU"

Hemengo kultur dinamika eredugarria da. Izugarria da hemen egiten ari zaretena, eta deitzen didaten guztietan segituan etortzen naiz.

Michel Hanekeren Amour pelikulan hartu zenuen parte; Cannesen eta Oscarretan saritua izan zen. Jauzi handia izango da antzezleku txikiekin alderatuta, ezta?

Gure ofizioaren beste alderdi bat da. Edonori gerta dakiok, bat-batean bere idoloaren aldamenean egotea. Gure lanak batzuetan ez du diru asko ematen, baina izaten dira bidaiatzeko aukerak.

Laster hasiko da Donostiako Zinemaldia. Aurkeztuko diren hiru filmetan parte hartu duzu. Sail ofizialeko Handia da horietako bat.

Altzoko erraldoiaren aitaren rola egiten dut nik. Ilusio handia dut, denontzako euskarazko pelikula on bat izateko. Hemengo istorio bat da, euskaraz. Ea interesa pizten duen munduan. **Operación Concha** ere emango dute Belodromoan.

Komedia bat da, zinemaldiaren egunetan gertatzen den iruzur handi bati buruz.

Zein da hirugarrena?

Film labur bat da: *For the good times*, gaztelerez. Andres Sainz donostiarraren film laburra da, oso istorio polita.

Euskal zinemagintza urte luze itzalpean egon da. Azken urteetan, ordea, ari dira euskarazko filmak ekoizten. Nola ikusten duzu egoera?

Urte on bat izan daiteke aurtengoa. *Loraldiaz* hitz egin izan da azken urteotan, baina hori esateko pelikula mordoxka bat behar da. Baina joera ona da, gorunzkoa. Aurten zazpi euskarazko film daude Zinemaldian; nik dakidala, ez da sekula horrenbeste egon. Eta Zinemalditik kanpo ere, ekoizpena goraka doa.

Aupa Etxebeste izan zen berpizkunde horren hasiera. Zer esan nahi du pelikula horrek zuretzako?

Mugarri bat da niretzat. Ikusle gehien izan dituen pelikula da oraindik. Arrakasta izan du jendearen artean. Nork ez du *Aupa Etxebeste* ikusi? Egia da aurreko urteetan nahiko motel zegoela euskarazko produkzioa; bagoi batek beti bultzatzen du, eta gero sortu dira beste batzuk. Beste bultzaldi bat ari da gertatzen orain.

Jarraipena izango du filmak, ezta? Agur Etxebeste udaberrian hasteko asmoa dago.

Etxetik gertu, bi eguneko jaialdia

Ateak zabaltzear ditu Kutxa Kultur musika jaialdiak. Irailaren 15ean eta 16ean izango da festibala, eta zazpigarren edizioa izango du aurtengoa. Berrikuntzen artean, lekua izango da nagusia; Igeldo menditik, hipodromora lekualdutako dira lehenengoz musika emanaldiak

Maddi Noriega

Rock, Pop eta elektronika musika estiloen doinura, bi eguneko jaialdia izango da datorren ostiralean eta larunbatean. Zazpigarren urtez, Kutxa Kultur Festibala egingo da, eta aurtengo edizioak, inoiz baino gertuago harrapatuko du Lasarte-Oria. Igeldo menditik, hipodromora lekualdutako da lehenengoz.

Askotariko musika emanaldiak ikusi eta entzuteko aukera izango dute hipodromora gerturatzen direnek. Eskoziako The Jesus and Mary Chain musika banda izango da zazpigarren edizioaren kartelburua. Antolakuntzatik jakitera eman dutenez, hemezortzi urte igaro dituzte diskorik atera

gabe, eta hilaren 15ean emango duen emanaldia baliatuko du apirilean argitaratuko duen lan berria aurkezteko. Horiekin batera, Love of Lesbian, Zea Mays, The Hives, Depedro, The Drums, eta Skakeitan taldeak arituko dira zuzenekoan, besteak beste. Parte hartzaile guztiak lau eremutan banatutako agertokieta egingo dituzte kontzertuak. Musika emanaldiez gain, *Street art* eta *Pop art* atrakzioak, eta beste zenbait ezusteko iragarri dituzte.

Musika elektronikoaren eremua

Baina leku aldaketa ez da berrikuntza bakarra izango; aurtengo edizioaren eremu berri

bat izango du jaialdiak: Paddock agertokia. Bertan, musika elektronikoa izango da entzungai, eta beste zenbait talderekin batera, Floating Points, Powder eta Erol Alkan bandek eskainiko dituzte emanaldiak.

Sarrerren prezioak

Kontzertuez gozatzen gerturatu nahi duen orok, sarrerak erosi beharko ditu. Zenbait prezio finkatu dituzte; bi egunetako emanaldietara gerturatzen direnek, 55 euro (3,5 euroko kudeaketa gastua gehitu zaio). ordaindu beharko dituzte, eta egun bakarreko sarrera erosten dutenek, berriz, 30 euro (3,5 euroko kudeaketa gastua gehitu zaio).

Jaialdiko musika emanaldiak

Irailaren 15a, ostirala

- **17:15:** Ateak irekiko dituzte.
- **18:00:** Sara Mansilla (Kutxa Kultur eremuan).
- **18:45:** Havoc (Keler eremuan).
- **19:35:** Division minuscula (Matusalen eremuan) / Madeleine (Kutxa Kultur eremuan).
- **20:20:** Amateur (Keler eremuan).
- **21:10:** Zea Mays (Matusalen eremuan) / Iñigo Serrulla (Kutxa Kultur eremuan).
- **22:00:** François + The Atlas Mountain (Keler eremuan) / Powder (Paddock eremuan) / Koken (Hidden eremuan).
- **23:00:** Jeremy Jay (Matusalen eremuan) / Buffalo (Kutxa Kultur eremuan).
- **23:45:** Love of lesbian (Keler eremuan) / Lukiek (Hidden eremuan).
- **00:30:** Pional (Paddock eremuan).
- **00:55:** Depedro (Matusalen eremuan) / Tversky (Kutxa Kultur eremuan) / Tijuana Bibles (Hidden eremuan).
- **01:55:** The Jesus and Mary Chain (Keler eremuan).
- **03:00:** Floating Points (Paddock eremuan).
- **03:30:** Baywaves (Kutxa Kultur eremuan).

Irailaren 16a, larunbata

- **17:00:** Ateak irekiko dituzte.
- **18:00:** Beñat Igerabide (Kutxa Kultur eremuan).
- **18:45:** Vanessa Zamora (Keler eremuan).
- **19:30:** Skakeitan (Matusalen eremuan) / Grande Days (Kutxa Kultur eremuan) / Luma (Paddock eremuan).
- **20:00:** A. Gaultier (Paddock eremuan).
- **20:15:** The Divine Comedy (Keler eremuan).
- **21:30:** Lookers (Matusalen eremuan) / Grande Days (Kutxa Kultur eremuan).
- **22:00:** Morgan Hammer (Paddock eremuan).
- **22:15:** The Drums (Keler eremuan).
- **23:15:** Vulk (Matusalen eremuan) / Oso Fan (Kutxa Kultur eremuan) / Oso Fan (Paddock eremuan).
- **00:00:** The Hives (Keler eremuan).
- **00:30:** Horse Meat Disco (Paddock eremuan).
- **01:30:** Kokoshica (Matusalen eremuan) / Kaixo (Kutxa Kultur eremuan) / Croi (Paddock eremuan).
- **02:15:** Hercules + Love Affair (Keler eremuan).
- **03:30:** Kelly Kapowsky (Kutxa Kultur eremuan) / Erol Alkan (Paddock eremuan).

Eskola materiala erosteko dirulaguntzak, eskuragarri

Lasarte-Oriako Udalak familiei eskolako materiala erosteko laguntza eskaera epea ireki du

Txintxarri

Lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzetan eskolatutako adingabeak dituzten Lasarte-Oriako familiek eskola-materialen erosketarako dirulaguntzak eska ditzakete.

Arropak, idazketa materiala, optometriako materiala, kirolerako materiala edo jarduera artistikoetako materiala izan daiteke laguntzaren oinarri, beti ere, Lasarte-Oriako dendetan erositakoak bada.

Familiek 25 eurotik 75 eurora eskuratu ahaliko dute, haien diru-sarreraren arabera.

Laguntza jaso ahal izateko, eskaerari herriko dende emandako jatorrizko tiketak erantsi beharko zaizkio. Tramitazioa on-line egiten bada, egiaztagiriak eskaneatuta eta elektronikoki behar bezala sinatuta egon behar dira. Eskaerak urriaren 2a bitartean egin ahaliko dira.

"Familiei eskolako materiala erosteko laguntza eta Lasarte-Oriako merkataritzaren aldeko babesa" programak 40.000 eurotik beherako diru sarrerak dituzten familiei laguntza eta Lasarte-Oriako herriko dendetan erosketak sustatzea du helburu.

Hondakin organikoa biltzeko poltsen makina, martxan

Erabilera desegokiak saihesteko, erabiltzaile bakoitzak lau hilean behin eskuratu ahaliko ditu poltsak

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak kontainer marroietan hondakin organikoak uzteko poltsak biodegradagarriak banatzen dituen makina jarri du.

Herritarrek udaletxe zaharreko harrerara hurbildu beharko dira kontainerreko txartelarekin, eta 50 poltsa eskuratu ahal izango dituzte.

Lau hilabete behin jaso ahaliko dira poltsak. Uztailean eta abuztuan merkaturatutako poltsa biodegradagarriak jaso zituzten herritarrek ezingo dute makina erabili datorren urriaren 25era arte.



Udaletxe atariko makina. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako irisgarritasun-plan berria

Ingaterk Consulting enpresak Lasarte-Oriako irisgarritasun-plan berria egingo du. Lana burutzeko epea hamabi astekoa da, eta aurrekontua 38.587 eurokoa da. Enpresa aholkulariak aurkeztu duen proiektuak lau esparru aztertuko ditu: bide publikoak, udalaren eraikin publikoak, garraiobide publikoak eta komunikazioa.

Estudioak gaur egungo egoeraren hasierako azterketa bat egitea aurreikusten du, eta, horren arabera, etapaka jarduteko proposamen bat landuko da, irtenbide zehatzak emanez.

Lana aurrera eramateko, enpresak auzo-elkarteei, mugikortasun murriztua edo premia bereziak dituzten pertsonen, guraso-elkarteei eta, oro har, beren ekarpenak egin nahi dituzten lasarteoriatar guztiei zuzendutako partehartze prozesua egingo du.



Rafa Diez, Ttakun-Enean, TXINTXARRI-ren galderei erantzuten. TXINTXARRI

"Burujabetza beharrezkoa da aldaketa soziala eragiteko"

RAFA DIEZ LAB-EKO IDAZKARI NAGUSI OHIA

Sei urte eta erdiko espetxealdiak Diezen ideiak "indartu" ditu, eta pozik dago ezker abertzalean sustatu zuten aldaketaz. Orain, indarrak metatzeko uena ikusten du

Maidar Galardi-Adrian Garcia

Ibilbide luzeko militantea da Rafa Diez (Lasarte-Oria, 1956); azken hamarkadak lehen lerroan eman ditu, sindikalgintzan eta politikan. Ezker abertzalearen norabide aldaketaren sustatzailetako bat izan da, eta gogotik ordaindu du horregatik; *Bateragune auziko* kondena osozorik beteta, abuztuaren 17an libre geratu zen, sei urte eta erdi barrote atzean eman ostean. Ezaguna eta maitatua da herrian; oraindik asko dira kalean

ongiotorria eman eta agurtzera joaten zaizkionak.

Zer eragin izan du kartzelaldiak zuregan? Nola sartu zen Rafa Diez espetxera 2009ko urriaren 13an, eta nola ateratu da?

Duela bederatzita urte, *Bateragune prozesua* hasi zenean, aldaketa estrategikoak sustatzeko garaiak ziren. Gure ustez, ezker abertzalearen ziklo politiko bat amaitzeaz zegoen. Ikusi genuen aro berri baten beharra, Euskal Herriak autonomismotik burujabetzarako bidea egiteko.

Eskema hori genuen buruan, eta hori sustatzeko ahaleginetan ibiltzeagatik, Estatuak erabaki zuen gure aurkako prozesua irekitzea, gu espetxeratzea eta zigortzea.

Espetxealdiaren ostean, nire pentsamoldea indartu egin da. Konbentzita nengoan aldaketa estrategikoaren beharraz. Uste dut planteamendu hori egokia eta ezinbestekoa zela, aurrera begira burujabetza eta proiektu independentista sustatzeko. Orain, konbentzita nago garai

hartan hartutako erabakiak egokiak izan zirela.

Eta ingurukoengan begirada jarrita, nolako izan da aldaketa? Zer eragin izan du kartzelaldiak senideengan?

Preso bezala gertutik ikusi dut senitartekoek jokatzeko duten rola. Kontua ez da soilik bisita bat egitea. Zure atzetik daude egunero: deiak, prestaketak hurrengo bisitarako, paketeak, albisteen berri ematea... preso moduan ditugun behar guztiak asetzen dituzte. Indarturik ateratu naiz, familiak egindako lanagatik. Oro har, goraipatu nahiko nuke preso guztien senideek, eta, batik batik, dispartzioaren ondorioz urrunduta dauden preso senideek, egiten duten lana. Oso lan isila da, oso lan zaila da, baina duintasun osoz egiten dute.

Lasarte-Orian egin zizuten ongiotorria. Nola sentitu zinen herriko plazan?

Sentsazio oso berezia izan zen. Gogoratzen dut plaza horretan asanbladak eta beste hainbat egitasmo eta borroka egin genituela, 1970eko hamarkadaren bukaeran. Okendo plaza beti izan da Lasarteko bihotza. Abuztuaren 17an ni hor izatea, eta ni protagonista izatea... sekulakoa izan zen. Gainera, jende ugari zegoen, jende ezagun asko eta aspaldi ikusi gabeko lagunak ere. Hunkigarria izan zen; ibilbidean jasotako txaloak, jendearen babesa eta irribarreak... Omenaldiaren ostean, gainera, aukera izan nuen jende ugari besarkatzeko eta haiekin hitz egiteko, tartean herriko preso ohiak eta Michelingo kideak. Ahaztezina izango da egun hori niretzako, eta bizi-bizi dago oraindik nire baitan.

Zer egingo du Rafa Diezek aurrerantzean?

Aldi berri bat hasiko dut. Beti prest egongo naiz laguntzeko, ekarpenak egiteko eta nik dudak guztia emateko. Baina ni ez naiz orain dela 30 urte nintzen militantea, ezin diot erritmo horri eutsi. Egokitze aldi bat behar dut, neke handia izan dudalako, alor guztietan. Ez dakit non egongo naizen, baina ziur inguruan ibiliko naizela, nik bizi-tako esperientziak konpartitzeko.

Donostian bizi zara duela urte batzuetatik, baina beti izan duzu lotura herriarekin. Kartzelaldiak indartu egin al du harreman hori?

Hamahiru urte egin nituen Michelin lantegian; lanean eta borroka ugarian. Herri Batasuna sortu zenean, lehenengo hauteskundeetan parte hartu genuen. Ondoren, LABen zenbait ardura hartu nituen, eta Donostiara joan nintzen bizitzera. Hala ere, beti izan dut lotura Lasartekin, eta ahal dudanean gustura izaten naiz bertako lagun eta kideekin. Egia da Donostian bizi naizela, baina nire bihotza Lasarten dago, eta gertutik jarraitu ditut bertako berriak. Ni saiatu naiz hari horri eusten, eta egia da espetxealdiak indartu egin duela lotura hori. Kartzelan nengoela, Lasarteko herriak eta jende askok babesa eman dit: askok ezagutzen nindutelako; baina, beste hainbatek, ezagutu gabe. Espetxealdiak balio izan dit herriarekin dudak lotura hori indartzeko.

Politikan hastapenak Lasarte-Orian egin zenituen. Amnistiaren Aldeko Mugimenduan lehenik, udalerrira sortzeko lanetan ondoren. Baina beti esan izan duzu, ordea, zure "unibertsitatea" Michelin izan zela. Hala da. 18 urterekin sartu nintzen Michelinen, 1974an. 1976ean izan zen ehun eguneko greba; oihartzun handia eduki zuen. Ordurako banuen gazte bezala kontzientzia maila bat, baina ez neukan egituratuta

"1976EKO MICHELINGO EHUN EGUNeko GREBA HORI MUGARRIA IZAN ZEN NIRE IBILBIDEAN"

pentsemendu politikorik eta sozialik. Michelingo greba hura unibertsitate trinkoa izan zen niretzat, eta, harrez geroztik, konpromiso indartsuak hartu ditut borroka nazionalean eta sozialean. Gainera, 1976ean LAB oraindik ez zen sindikatua, masa mugimendua baizik. Orduantxe egin zuten urratsa sindikatu bilakatzeko. Zalantzarik gabe, Michelingo greba hura mugarrria izan zen nire militantzia ibilbidean.

Eta, gaur egun, ikusi al duzu nola dagoen herria? Mercadona bat eta Leroy Merlin bat eraiki behar dituzte inguruan, besteak beste. Eta, azkenean, herri oso gertu izango da erraustegia.

Ikaragarria izaten ari da aldaketa. Garai hartan, Michelinek 3.800 langile zituen. Luzuriaga eta Michelin ziren Lasarte-Oriako motorrak. Eraldaketa erraldoia izan da. Lasarteko ehun ekonomikoa aldatu egin da; zerbitzuetako enpresek indarra hartu dute, eta hor kokatu ditzakegu Mercadona eta Urbil, esate baterako. Gainera, beste era bateko bizimodua sortu da. Azken urteotan neoliberalismoak eta globalizazioak gizartea eraldatu dute.

Belaunaldien arteko hutsunea gero eta handiagoa da; lan prekarioak, etxebizitza batera sartzeko zailtasunak... Zure ustez, gazteen belaunaldiak galdu egin al du haien gurasoak izan dituzten eskubideak eta pribilegioak?

Lan merkatua aldatu egin da. Egiturazko aldaketa gertatu da langileok eta gizarteak kapitalarekin dugun harremanean. Garai hartan, mundu guztiak zeukan lanpostu finko bat, eta eskubideak ere nahiko errotuak zeuden. Trantsizioko aurreneko urteetan, langile borrokari esker lortu ziren eskubide asko, baina, denboraren poderioz, hori guztia aldatzen joan da; orain, langileek ia ez dute eskubiderik. Gazte bat lan mundura sartzen denean, ez dauka inolako eskubiderik, eta beti dago merkatuaren menpe. Ehun ekonomikoaren aldaketaz gain, eredu ekonomiko eta sozial berri bat ere behar ditugu.

Zer rol jokatu behar dute sindikatuek borroka horretan? Ari al dira alternatibak eskaintzen gehien behar dutenei?

Kapitalaren eta lanaren arteko harremanean, kapitalak sekulako boterea hartu du, bai kontrataziorako, bai lan baldintzak inposatzeko, eta baita langileak kaleratzeko ere. Hiru esparru horietan patronalak lortu ditu erraztasun guztiak. Aldiz, sindikatuoi kendu egin dizkigute tresnak, langileen eskubideak defendatzeko eta baldintza prekarioak dituztenen alde borrokatzeko. Gainera, dugun autonomia ereduarekin, Iruñeako eta Gasteizko parlamentuek ez dute eskumenik lan arloan. Horregatik, sindikalgintza abertzaleak beti aldarrikatu du lan harremanetarako euskal esparru bat. Benetan burujabetzaren aldeko pausua eman behar badugu, garrantzitsua izango



Rafa Diez, askatu zuten egunean, Okendo plazan egin zioten ongietorrian. TXINTXARRI

da arlo sozial eta ekonomikoan boterea edukitzea.

Desoreka horiek hausteko esan duzu beharrezkoa dela estatu propioa sortzea. Baina, ez al litzateke arriskua egongo beste estatuen bizio berberak errepikatzeke?

Askotan lotzen da burujabetza elementu sinbolikoekin, baina guk beti diogu burujabetza

"EZ DUT INOLAKO OZTOPORIK IKUSTEN ELA-REN ETA LAB-EN ARTEKO ELKARLANERAKO"

politikoa erabat lotuta dagoela aldaketa soziala eragiteko aukerekin. Burujabetzaren aldarria ez da abertzaleen eskaera etnizista bat. Aitzitik, burujabetzaren eskema erabat lotuta dago beste eredu sozial bat sortzeko aukerarekin. Hori ez da posible izango Espainian gauden bitartean.

Eta, zure ustez, ezker abertzalean jarri al da indar nahikoa diskurtso horretan, batez ere, ikusita ezkerretik sortu diren lehiakideak?

Autokritika egin behar da: uste dut batzuetan pendulu baten moduan ibili garela. Batzuetan garrantzia eman diogu auzi nazionalari, elementu isolatu bat izango balitz bezala. Besteetan,

ordea, erdigunean jarri ditugu gai sozialak. Nik uste dut biak erabat lotuta daudela. Ez dugu lortu gizarteak ikustea burujabetza eskaera denontzako proiektu politiko berri baterako aukera gisa. Landu egin behar dugu hori. Zertarako nahi dugu euskal estatu burujabea? Herri bezala badugu hizkuntza eta kultura proiektu bat, baina badugu ere herriarentzako eredu bat aldaketa sozialerako eta demokraziarako. *Podemos fenomenoarekin ezker abertzaleak astindua jaso du.* Baina konbentzitura nago ezker zabaleko jende askorekin gai askoren inguruan eztabaida dezakegula.

Nola ikusten duzu gehiengo sindikalaren egoera? Gara hartan zu izan zinen ELaren eta LABen batasunaren bultzatzailetako bat.

Nik esan izan dut palanka berriak behar ditugula burujabetza eta aldaketa sozialerako mugimendua astintzeko. Eta palanka berri horietako bat izan daiteke sindikalgintza abertzalea. Nik 1993an beste fase bat bizi nuen, beste aro batean geunden, eta testuingurua desberdina izan arren, orain ez dut ikusten inolako oztoporik elkarlan hori termino politiko, sozial eta sindikaletan emateko. Alderantziz, nik uste dut baldintza guztiak daudela, eta konbentzitura nago emango dela sindikatuen batasun hori.

Hurrengo asteetan ikusiko ditugu elkarlan horren aldeko urrats gehiago.

Aro berri baten aldeko apustua egiteagatik atxilotu zintuzteten. ETAk aurtengo apirilean utzi ditu armak, baina presoan arloan ez da aurrerapausorik eman. 300 baino gehiago daude oraindik, gehienak Euskal Herritik urrun. Euskal Preso

"ADISKIDETZE PROZESUAN AUSARTA IZAN DA EZKER ABERTZALEA; EGIN DIRA URRATSAK"

Politikoen Kolektiboak ondorioen txostena kaleratu du duela gutxi. Zer aldaketa ekarriko ditu horrek?

Estatuak presoan gaia bahitu duenean, eta, hainbatetan EAJk ere, saiatu da erantzukizuna ezker abertzaleari eta presoei egotzen. Une honetan, kolektiboak hartutako erabakiarekin, erantzukizuna benetan dagokionak du: preso bezala, kolektibo bezala, prest gaude bakoitzak dituen bide juridikoak hausnartzeko eta arakatzeko. Badakigu Estatuak jarraituko duela blokeatzen eta mugimendu neurtuak egiten, kontraesanak sorrarazteko. Baina kolektiboak hartutako erabakiaren ostean, erantzukizuna gizarteak du, eta

protagonismoa hartu behar du. Nola ulertzen da borroka armatua amaitu eta sei urtera eskubideak urratzen dituen salbuespeneko neurriak egotea? Presoen aldeko olatu berri bat ikusten dut, eta guk olatu hori bururaino eraman behar dugu eragina izateko. **Biktimak utzi ditu gatatzak. Lasarte-Orian badaude estatuaren indarkeria sufritu dutenak. ETAren indarkeria jasan dutenak ere badaude, hildakoak barne. Nola ikusten duzu adiskidetzea herrian?**

Adiskidetze prozesua gauzatzeko urrats batzuk egin dira, eta ezker abertzalea ausarta izaten ari da, prozesu horretan eman behar duena emateko; iraganari buruzko hausnarketak egiten, eta aurrera begirako konpromiso propioak hartzen. Batzuetan kode etikoari buruz hitz egiten da, baina nik uste dut kode demokratikoari buruz ere hitz egin behar dela. Bi gauzak lotuta daude, denok errespetatu behar ditugu kode horiek. Batzuek kode etikoari buruz asko hitz egiten dute, baina kode demokratikoaz ez dute ezer jakin nahi, ez daudelako herriaren borondatea errespetatzeko prest. Denok kode etikoaz eta demokratikoaz hitz egiteko prest egongo bagina, sekulako urratsak egingo genituzke adiskidetze prozesuan.

Elkarrizketaren bertsio luzea www.txintxarri.eus atarian dago irakurgai.

Irabazteko guztia, galtzekorik ez

BURUNTZALDEKO EUSKALTEGIETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DA

Iraila, ikasturte berria, egunerokora itzulera eta aisialdi tartea antolatzeneko urte garaia. Euskara ikasi edo maila hobetzea izan liteke gure buruari jar diezaiokegun erronketako bat. Horretara animatzen gaituzte Buruntzaldeko udal eta euskaltegiek, azpimarratzen dutenez galtzekorik ez baitugu, irabazteko berriz asko, guztia. Bai guk baita inguratzen gaituztenek ere

Buruntzaldeko udalen helburua da bertako euskaltegiak datorren ikasturtean gutxienez 1.000 ikasle izatera iristea. Euskaltegirako pausoa ematera edo ematen segitzera animatu nahi dituzte herritarrak. Matrikulazio epea zabalik dute hilabete hasieratik Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo euskaltegiak. Mugi eta izena eman, irailan edo beranduenez urria hasieran abiatuko baita 2017-18 ikasturtea.

Euskara maila guztietan ikasi eta praktikan jartzeko aukera eskaintzen digute, lehen mailako tituluak euskaltegietan bertan eskuratzekoa, euskaraz jarduera ezberdinetan parte hartzekoa baita. Merke gainera, ia doan, eskualdeko udalek herritarren eskura jarritako % 75-% 100 arteko dirulaguntzei esker, eta HABEK ikasmaita gairatzen dutenei emango dien bekari esker. Informazioa eskura liteke www.buruntzaldea.eus webgunean.

Bi udal euskaltegi

Bi udal euskaltegi ditugu eskualdean; Lasarte-Oria eta Hernanin. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan guztira 38 udal euskaltegi sarea dugu, 1981. urteaz geroztik 16 urtetik gorako herritarrak euskalduntze eta alfabetatzeko lanetan. Unean uneko eskari eta beharrei erantzunez, euskara irakasteko material eta baliabide egokiek jardunean. Azken urteetan on-line irakaskuntza ere garatu dute.

Egoitza berria Andoainean

AEK-k berriz bost egoitza zituen orain arte; euskaltegi bana Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilen. Aipatzekoa, Andoaineko egoitza berria estreinatuta duela. Aurrerantzean, Plazaola 2 helbidean aurkituko duzue AEK. 15 urterako lagapena egin dio Andoaingo Udalak AEK-ri.

Euskaltegi berri bat Urnietan

Urnietan zen bestalde, egun euskara ikasteko gunerik ez zuen udalerririk



Urnietan zen euskara ikasteko gunerik ez zuen udalerririk bakarria Buruntzaldean. Orain arte. Jada azken ukituak ematen ari dira AEK-k Errekalde kalean zabalik duen egoitzari. Argazkia: Urnietako Udala.

2017-2018 IKASTURTEA

“Euskara maila guztietan ikasi eta praktikan jartzeko aukera eskaintzen digute, lehen mailako tituluak euskaltegietan bertan eskuratzekoa, euskaraz jarduera ezberdinetan parte hartzekoa baita. Merke gainera, ia doan”

bakarria Buruntzaldean. Orain arte. Jada azken ukituak ematen ari zaizkie aurrerantzean AEK-k Errekalde kalean jada zabalik duten egoitzari. “Aspaldiko eskaera zen. Hutsune bat bazen Urnietan. Euskaldundu nahi zuenak inguruko herrietako batera mugitu behar izaten zuten. Horrek askotan jendea atzera botatzen du”, adierazi digu Janire Urrestarazu, Urnietako AEK euskaltegi arduradunak.

Euskaltegia aurrerantzean etxe ondoan izango dute beraz urnietarrek. Euskararen ezagutzan, baina batez ere elkarlana sustatuz erabileran eragin nahi dute Udalak eta AEK-k udalerririk honetan. Honenbestez, matrikulatzera animatzen gaituzte Urnietako euskaltegitik, eskualde osorako baliagarri den mezua azpimarratuz. “Animatu, behar bat dago eta denon erantzukizuna da horri erantzutea. Denon arteko lan bat

izan behar du”, azpimarratzen du Janirek.

Bailarako udal eta euskaltegiek egin bezala, euskara ikastea hizkuntza bat erabiltzeko ikastetik haratago doala gaineratzen du. “Mundu ikuskera bat irekitzen dizu hizkuntza bat jakiteak eta hori beti da aberatsa. Geroz eta hizkuntza gehiago jakin, ikuspuntu gehiago izango ditugu, kultura gehiago ezagutuko dituzu eta hori beti izango da aberatsa”, dio Janirek. Bai norberarentzat baita inguratzen gaituztenentzat ere.

Matrikula opari

Euskara ikasteak gainera saria dakar oraingoan, bai AEK-n matrikulatzen denarentzat, baita bere lagun batentzat ere. AEK-n euskara ikasten ari bazara edo AEK-ko ikasleren bat ezagutzen baduzu, adi beraz. 2017-18 ikasturterako matrikula bat

oparitzera doa, zozketa bidez irailaren 27an. AEK-ko ikaslea edo ikasle baten laguna bazara, irailaren 22a baino lehen sartu aek.eus atarian eta parte hartu antolatu duten zozketan. Zozketako sarituak ikasturte berriko matrikula doan izango du eta sariduna gonbidatu duen AEK-ko ikasleak %50eko beherapena urriaren 2an abiatuko duten ikasturte berriko matrikulan. Zorte on!

la doan aterako zaizu

Buruntzaldeko udalek eskaintzen dituzten dirulaguntzei esker, oso modu onean ikasi daiteke. la doan, eskualdeko udalek herritarren eskura jarritako % 75-% 100 arteko dirulaguntzei esker, eta HABEK ikasmaita gairatzen dutenei emango dien bekari esker.

Informazioa eskura liteke buruntzaldea.eus webgunean.

Eskaintza zabalik da

AEK EUSKALTEGIAK

Eskualde mailako eskaintza: euskaldundu, alfabetatu eta azterketak prestatzeko ikastaroak, autoikaskuntza, Mintzalaguna, Zilegi Eskolak, ordutegi eskaintza zabalik da...

Andoain

Ordutegia: 10:00-13:00
17:00-20:00.

Astigarraga

Ordutegia: 09:00-13:00
(astelehen eta asteazkenetan);
17:30-19:30 (astearte eta ostegunetan).

Hernani

Ordutegia: 09:00-13:00
(astelehen, asteazken eta ostiraletan);
17:00-19:00 (astearte eta ostegunetan).

Lasarte-Oria eta Usurbil

Ordutegia: astelehenean
ostiralean (11:00-
13:00/18:00-20:00).

Urnietan

Ordutegia: goizez.

Informazio gehiago: aek.eus

UDAL EUSKALTEGIAK

Eskaintza: euskara maila guztietan ikasteko aukera, tituluak lantzeko ikastaroak, autoikaskuntza, kafe tertuliak, ordutegi malguak, epe ezberdinetan ordaintzeko erraztasunak...

Hernani

Matrikulazio epea: irailaren 4tik
22ra. Ordutegia: 09:30-
13:30/16:30-19:30.

Lasarte-Oria

Matrikulazio epea: irailaren 1etik
15era. Ordutegia: 09:00-
19:15.

Informazio gehiago:
udaleuskaltegiak.eus

Buruntzaldeko udalek % 75 - % 100
arte an diruz laguntzen euskara ikastea!



Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



Eus
ka
ra
ikasiz

dena irabazteko,
ezer ez galtzeko!

Jo gogoko duzun euskaltegiara eta izena eman!



buruntzaldea.eus

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2.
andoain@aek.eus
943 591 704

LASARTE-ORIA

Munteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea 17 Behea
943 372 863
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi 11
943 557 801
607592864
Zilegi eskola: 663043314

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia 43, Behea
607 609 379
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia 48.
eta Nabarra Oñatz 3
607610687

Lasarte-Oriako Udal
Euskaltegia

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren
gainean)
943 36 16 21
euskaltegia@lasarte-oria.eus

Hernaniko Udal
Euskaltegia

Karobieta 63
(anbulatorio zaharra)
euskaltegi@hernani.net
943 331 896

URNIETA

Urnietako AEK
Euskaltegia
Errekalde kalea, 1

Kontxako azken txandan lehiatuko da Fernandez

Lehenengo jardunaldi txukuna egin ondoren, Kontxako Banderan arituko da igandean Donostiarra trainerua. Hibaikaren eta San Juanen artean jokatu dute garaipena

Adrian Garcia

Arraun denboraldiko proba garrantzitsuena da Kontxako Bandera. Joan den igandean jokatu zuten lehen jardunaldia, eta igande honetan erabakiko da lehiaketa. Hibaikak eman zuen lehen kolpea, jardunaldia irabazita. San Juan izango du aukari nagusia igande honetan, 2,66 segunduko aldea besterik ez baitzion atera. Intza Fernandez lasarteoriatarra Donostiarra traineruan arituko da. Joan den igandean zazpigarren geratu ziren, Hibaikak baino minutu erdi gehiago eginda.

"Sentsazio onekin" bukatu zuen estropada Donostiarrak, Fernandezek TXINTXARRI-ri azaldu dionez. "Espero baino hobeto egin genuen". Lehenengo ziaboga arte fin eutsi zioten erritmoari, eta azkeneko luzean egin zuten behara. Dena dela, Fernandezek nabarmendu du emaitza ona dela.

"Sentsazio on" horiek hauspotuta ekingo dio lasarteoriarraren traineruak bigarren jardunaldiari. Helburua argi dute: "Jardunaldia irabaztea gustatuko litzaiguke, edo, gutxienez, Deustu aurreratzea". Lau segundura besterik ez dituzte bilbotarrak. "Ahal ditugun postuak aurreratzea da helburua".



Donostiarra trainerua, lehen txanda bukatu berritan, joan den igandean. DONOSTIARRA

Itsaso zakarra aurreikusi dute iganderako, eta Donostiarraren alde jokatu dezake horrek. Bi eta hiru metro arteko olatuak espero dira. "Azken asteetan itsaso txarrarekin egon gara entrenatzen, eta nahiko entrenamendu onak izan dira. Agian gure alde izango da itsaso zakarra, olatuak aprobetxatzeko aukera dugulako".

Zorte apur bat ere beharrezkoa izango du; igandean bertan zozketatuko dituzte traineruak arituko diren kaleak. Fernandezek esperantza badu bigarren

egokitzeko, joan den asteburuan bezala. "Guri gehien komeni zaiguna da".

Urdaibaian marka historikoa

Gizonen estropadan, Urdaibaiek eskuratu zuen garaipena lehen jardunaldian, marka historikoa onduta, gainera: 18:53.52. Halere, ez du garaipena ziurtatuta, Hondarribiak lau segundu gehiago besterik ez zituelako behar izan estropada osatzeko. Oriok zailagoa izango du, hirugarren sailkatu baitzen, bederatzi segundora.



lazko zeharkaldiaren une bat. EASO IGERIKETA TALDEA

Zazpi herritarrek zeharkatuko dute Kontxako badia igerian

Ur irekietako azken zeharkaldia jokatu dute Donostian. Buruntzaldea IKT-k ireki du izen ematea

Txintxarri

Itsas zeharkaldien denboraldia ez da oraindik amaiatu. Asteburu honetan jokatu da azkenetariko proba bat, Donostian. Eta nola ez, ur irekietan jarduten duten lasarteoriarrak ere proba horretan lehiatuko dira. Larunbatean, 11:45ean hasiko da Kontxako Badiako Igerialdia. Nautikotik hasita, badiari itzulia egingo diote, 2.200 metro bete arte.

Lasarte-Oriako bi emakume eta bost gizonek eman dute izena. Donostiako Badiako Igerialdia ur irekien denboraldiko proba aitzindaria da; 1943. urtetik egiten da, eta Easo Igeriketa Taldeak antolatzen du. Gipuzkoako Zeharkaldien Ligaren azken proba da.

Itsaso zakarra aurreikusi dute astebururako, eta tentuz aritu beharko dira igerilariak. Badiari itzulia emateko bost buia hartu

beharko dituzte erreferentziatzat.

Hiru irteera emango dituzte, bakoitzak izen ematerako orduan ezarri duen denbora aurreikuspenaren arabera. Txikienez ere lehiatuko dute zeharkaldian: 740 metroko ibilbidea osatu beharko dute. Probaren ostean, jatekoa eta edatekoa emango dute portuaren inguruan.

Buruntzaldea IKT

Eta ur irekietako denboraldia amaitzearekin batera hasi da estalitako igerilekuena. Buruntzaldea IKT-k ireki du izena emateko epea. Lasarte-Orian izena eman dezaketen haurrik gazteenak 2010ean jaiotakoak dira. Ordutegiei eta kuotei buruzko informazioa buruntzaldeaikt.blogspot.com helbidean edo 696 506 632 telefonora deituta dago eskuragarri.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

ARRAUNA

KONTXAKO BANDERA

Intza Fernandezek eta Donostiarrak Kontxako Banderako bigarren jardunaldia jokatu dute, Donostian.

Igandea. 11:00. Donostiako Kontxako hondartza.

FUTBOLA

ERREGIONAL PREFERENTEA

Larramendi torneoa jokatu du Ostadar SKT-k, Andoainen. 3. eta 4. postua erabakitzeo partida

jokatuko du, Trintxerpeko taldearen aurka.

Larunbata. 16:00. Andoingo Ubitarte zelaia.

LEHENENGO MAILA

Realak Ligako partida jokatu du,

Atletico de Madrid taldearen aurka.

Igandea. 16:00. Cerro del Espino zelaia, Madril.

BIGARREN MAILA

Añorgako taldeak Eibarren aurka jokatu du igandean.

Igandean. 12:00. Eibar.

IGERIKETA

KONTXAKO BADIako ZEHARKALDIA

Lasarte-Oriako zazpi igerilarik jokatu dute larunbatean Kontxako Badiako Igerialdia, ur irekien aurtengo denboraldiko azken zeharkaldia.

Larunbata. 11:45. Donostiako itsas portua.

DUATLOIA

IBARRAKO MENDIKO HERRI DUATLOIA

Herriko bi kirolarik parte hartuko dute Ibarako duatloian, larunbat

arratsaldean. 2,9 kilometroko mendi lasterketa, 7,5 kilometro mendi bizikletaz eta 2,3 kilometroko mendi lasterketa osatu beharko dute.

Larunbata. 16:30. Ibarra.

HERRI LASTERKETAK

TALIDOMINA KALTETUEN ALDEKO LASTERKETA

Bi herrikidek parte hartuko dute talidomina kaltetuen aldeko 7,5 kilometroko lasterketan.

Larunbata. 18:30. Legorreta.

MENDI LASTERKETAK

AXARI TRAIL

Lau herritarrek parte hartuko dute Axari Trailen, 25 kilometroko lasterketan.

Igandea. 09:30. Idiazabal.

ZALDI LASTERKETAK

DONOSTIAKO SARI NAGUSIA

Zaldi odolgarbien erakusketa egingo dute, eta, ondoren, Donostiako Sari Nagusia jokatu dute.

Larunbata. 11:00. Hipodromoa.

Irailetik aurrera, geldirik egoteko aitzakiarik ez

Lasarte-Oriako udal kirol instalazioen bazkide direnek kirol eskaintza ugari edukiko dituzte eskura irailetik aurrera. Udalak lankidetzak hitzarmenak sinatu ditu herriko zenbait kirol elkarterekin; prest dauzkate 2017-2018 ikasturterako proposamenak

Txintxarri

Gure herriko udal kirol instalazioen bazkideek hainbat jardura berezitan hartu ahalko dute parte irailetik aurrera. Lasarte-Oriako Udalak lankidetzak hitzarmenak sinatu zituen zenbait kirol elkarterekin joan den ikasturtean, eta, udako atsedenaldiaren ondoren, prest dituzte 2017-2018 sasoirako kirol proposamenak.

Yoga klaseak eskaintzen ditu Yogalasarrek, %20 merkeago. Astelehen eta asteazkenetan 09:30etik 11:00etara eskainiko dituzte saio horiek, eta 20:30etik 22:00etara astearte eta ostegunetan.

Saito gimnasioak ere prestatu ditu eskaintza erakargarriak. %25eko beherapenak egingo ditu honako saioetan: spinning, aerobik, step, zumba, pound fit, jumping-fitness, muskulazioa eta entrenamendu pertsonalak. Astelehenetik ostiralera eskainiko dituzte aipatu saio horiek, 11:00etatik 17:00ak arteko ordu-tartean (zentroan libre geratzen diren orduetan antolatuko dituzte entrenamenduak).

Zaldi gainean ibiltzen ikasi nahi dutenek aukera ederra edukiko dute Miracampes hipika zentroan. Hamar saioko bonua %20 merkeago eskuratu ahalko dute udal kirol instalazioen



Udalak eta zenbait kirol elkarterekin lankidetzak hitzarmenak sinatu zuten. TXINTXARRI

bazkideek. Asteazken eta ostiralean 18:30ean hasiko dira eskolak; 13:00etan larunbatetan eta 17:30ean igandean.

Gero eta indartsuago ari den diziplina da *Crossfit* izenez ezagutzen dena. Koroi-bos zentroak hiru hilabeteko bonuak eskaintzen ditu, 135 euroren truke. Astearte eta ostegunetan izango dira lan-saio gehienak: 07:00etatik 08:00etara, 10:30etik 11:30era eta 20:30etik 21:30era. Astelehen eta asteazkenetan, berriz, ordu tarte jakin eta bakar batean: 13:15etik 14:15era. Aipatutako horiek dira Lasarte-Oriako eskaintza bereziak.

Udalak Buruntzaldea eskualdeko kirol-lankidetzak hitzarmenak sinatu zuenez gero, Lasarte-Oriak eta bertako kiroldegiko bazkideek kanpokoak diren zenbait eskaintza berezitan ere parte hartu dezakete. Esaterako, Buceo Donosti elkarterek urpekaritza ikastaroak eskaintzen ditu, %10 merkeago. Donostian dago baita ere La Perla talasoterapia gunea. Zenbait eskaintza prestatu ditu ikasturte berrirako: %15eko deskontua sasoiari jartzeko talasozirkuituan, eta %10ekoak banakako tratamenduetan

(masajeak, estetika, hidromasaje bainuak, etab.).

Zarautzen dagoen Spa Gym zentroak, bestalde, %20ko deskontuak egingo ditu honako jardueretan: spa zirkuitua, masajeak eta tratamendu bereziak. Azkenik, Urbil merkatal zentroan dagoen Eroski Bidaiak agentziak %5 merketuko ditu hainbat bidaia.

Udal Kiroldegiko ikastaroak

Artikulu honetan aipatutako jardura bereziak dira aurtengo kirol eskaintzetako berrikuntza nagusiak. Dena den, badaude kirola egiteko are aukera gehiago, Udal Kirol Zerbitzuak eskaintza zabala prestatu baitu aurtengo ikasturterako ere. Haur zein heldu, hamaika dira aurtengoa egin ditzaketen ikastaroak.

Helduentzat pentsatu dituzten jardueren artean, badaude batzuk gaitasun fisiko hobetzea xede dutenak: zumba, tonifikazioa, *jump*, *indoor* ziklismoa eta *body pump*. Bestalde, aerobik klaseak ere eskaintzen dira, eta beste hainbat ere bai: pilatesa, giharren mantenturako saioak eta *stretching* delakoak (giharrek luzatzeko saioak). Igerilekuan, uretan murgilduta egitekoak diren jarduerak ere aukeratu ahalko dituzte herritarrek. *Acuagym* eta *zumbaerobic* dira udalak eskainiko dituen jarduerak aurtengoa. Irailaren 11n hasiko dira ikastaro horiek denak, eta datorren urteko ekainaren 15ean bukatu.

Gaztetxoek ere ez dute izango aspertzeko aitzakiarik. Hiru kirol jardueratan oinarrituko da aurtengoa eskaintza: *gaztezumba*, *txikizumba* eta kirol-ludotekak. Horrez gain, igeri egiten ikasteko edota hobetzeko saio eta aukera ugari jarriko

ditu udalak herritarren eskura. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, haurtxoentzako klaseak larunbat goizetan izango dira. Era berean, jakinarazi dute egun gehiagotan egin ahalko direla igeriketa-teknifikazio saioak. Aurreko urteko egunez gain, astearte eta ostegunetan ere emango dituzte saioak.

Ikastaroen prezioei, egunei, ordutegiari, ordaintzeko aukerei eta beste hainbat gauzei buruzko informazioa eskuratzeko, bide bat baino gehiago dituzte interesa dutenak. Deitu dezakete 943 37 61 82 telefonora, esaterako. Bestela, gerturatu daitezke Udal Kiroldegiko bulegora, goiz zein arratsalde: 10:00etatik 12:00etara, edo, bestela, 17:00etatik 19:00etara. Interneten ere eskuratu daitezke jardura horiei buruzko informazio gehiago: lasarte-oria.org web orrialdean.

Neguko ordutegia indarrean

Irailekin batera iritsi da neguko ordutegia Lasarte-Oriako udal kirol instalazioetara. Maialen Chourraut kiroldegia 07:00etan irekiko dute, eta 22:30ean itxi, astelehenetik ostiralera. Larunbatetan, 09:00etan zabalduko dituzte ateak, arratsaldeko zortziak arte. Eta, igandean, goizez soilik egongo da zabalik, 09:00etatik 13:00era. Michelingo instalazioen ordutegia, berriz, honakoa da: 15:30etik 22:30era astegunetan; 09:00etatik 20:00etara larunbatetan; eta 09:00etatik 13:00era igandean.

IRAILAREN 11N HASIKO DIRA UDALAK ESKAINITAKO KIROL JARDUERAK, HAUR ZEIN HELDUENTZAT

Beltzak RT errugbiko taldeak denboraldia hasiko du, ostiralean

Atsedena amaitu da errugbilariarentzako. Udako oporren ondoren, Beltzak RTko errugbi eskola martxan da berriz ere, eta entrenamenduak hasiko dituzte. Gaur bertan, ostiralean, egingo dute lehen entrenamendu saioa, Michelin zelaian.

Lasarte-Oriako errugbilari gazteenek aukera izango dute denboraldiko lehen harremana

egiteko baloi obalatuarekin. 18:15ean hasiko da entrenamendua, eta Beltzak RTtik jakinarazi dutenez, gustura hartuko dute beraien artean hurbiltzen den oro, "plakaketa eta barre artean".

Lasarte-Oriako Errugbiko taldeak dei egiten diete neska eta mutilari, "errugbiaren balioak" konpartitzera. Gainera, gurasoei gogorarazi diete errugbi eskolak kosturik ez duela, doakoa baita kirol taldean denboraldi osoan aritzea.

Asier Pozo da 2017ko laugarren onena kadete mailan

Gipuzkoako Txirrindularitza Elkarterek kadete eta junior mailako txirrindularien ranking-ak argitaratu ditu. Buruntzazpi taldeko hainbat txirrindulari agertzen dira zerrenda horietan. Kadete mailakoan, esaterako, onenen artean dago Asier Pozo. Orain arteko lasterketetan 104 puntu pilatu ditu; laugarren marka onena da hori. Pozoren

taldekide Aaron Anzizar eta Markel Aristegik ere puntuatu dute aurtengoa; 11 eta 4 poltsikoratu dituzte, hurrenez hurren.

Junior mailan, hamar onenen artean sartzeak da Luken Carbayedak. 45 puntu bildu ditu aurtengoa, oraingoz; hamargarren onena bezainbeste poltsikoratu ditu eta bederatzigarrenak baino bat gutxiago besterik ez dauka. Oier Urbizu taldekideak ere batu ditu zenbait puntu aurtengoa denboraldian: bost zakuratu ditu orain arteko lasterketetan.

LOKEko judokak, tatami gainean lanean honezkero

Gogotsu ekin diote 17-18 sasoiari LOKEko judoek. 7 eta 9 urte arteko haurrak dira gazteenak; astelehen eta ostiralean ariko dira, 18:30etik 19:30era. 10 eta 11 dituztenak, berriz, astean hirutan: 19:30etik 21:00etara astelehen eta ostiralean eta 18:30etik 19:30era asteazkenetan. Helduek hiru egun horietan entrenatuko dute, 19:30etik 21:00etara.



Errendimenduko juniorrak, iazko partida batean. TXINTXARRI

Gero eta talde gehiago saskibaloia kantxan

Urtetik urtera hazten jarraitzen du Ostadar SKTren saskibaloia atalak. Zortzi talde izango ditu aurten, eta laster ekingo diote konpetitzeari, urrian. Berrikuntza nagusia da infantil mailako neskena. Lagunartekoak jokatuko dituzte hurrengo asteetan.

Iñigo Gonzalez

Gaztetxoentzako eskolatik hasi eta senior mailako taldeetara arte, kategoria guztietan lehiatuko da aurten Ostadar SKTren saskibaloia alorra. Hazten jarraitzen du sailak: zortzi talde aterako ditu denera. Inoiz baino gehiago.

Inoiz baino talde gehiago, inoiz baino kategoria gehiagotan: urteotan guztietan ez bezala, infantil mailako nesken taldea aterako du aurten Ostadar SKTk. "Zortzi urte betetzen dituztenetik, kategoriaz kategoria eta etenik gabe, herriko gazteek gurekin jokatuko dezakete saskibaloian", nabarmendu du sailaren arduradun Endika Marrahik. "Hazten jarraitzen dugu".

Infantil Txikia eta Handia; Partizipazioko eta

Errendimenduko kadeteak; Partizipazioko eta Errendimenduko jubenilak; eta Senior Probintzialeko 1go eta 3. mailako taldeak. Horietatik zazpi emakumezkoenak dira, eta gizonezkoena bestea (3. mailako Senior Probintziala). Horrez gain, 40 neska gazte inguruk eman dute izena saskibaloia eskolan.

Konpetizio ofizialak, laster Abuztutik daramate jokalariek gogor entrenatzen, laster hasiko

ERRENDIMENDUKO JUNIOR TALDEAK DATORREN ASTEKO LARUNBATEAN HASIKO DA LIGAN LEHIATZEN

den denboraldiari aurre egiteko. Errendimenduko Junior taldea izango da goiztiarrena: datorren asteko larunbatean hasiko da ofizialki konpetitzen, Maialen Chourraut Kiroldegian. Atletico San Sebastianekin neurtuko ditu indarrak, 16:00etatik aurrera. Astebete geroago hasiko dira Errendimenduko kadeteak. Beste guztiak, urritik aurrera.

Sasoia puntu egokia hartze aldera, lagunartekoak ari dira jokatzen asteotan. Kadete mailako bi taldeak eta Errendimenduko juniorrak Barañainera joango dira bihar. Lagunarteko bana jokatuko (09:30ean, 11:15ean eta 13:00etan) eta eguna pasako dute han; Ostadar SKTk eta Lagunak taldeek are gehiago estutuko dute euren arteko harreman ona.



Añorgako partidaren une bat. CONCHI SANCHEZ

Añorgak bana berdindu du etxean Mulier taldearen aurka

Izaskun San Anicetok eta Itsaso Contrerasek jokatuko dute Añorgan. Azken unean jaso dute aurkako gola

Txintxarri

Bigarren mailan hasi dute dagoeneko liga. Añorka KKEK etxean zuen lehen jardunaldiko partida, Mulier taldearen aurka. Bana berdindu dute, aurkako gola azken unean jasota. Hainbat lasarteoriatarrek jokatzen dute Añorgan; Izaskun Aniceto aurrelariak bigarren zatian jokatuko zuen, baita Itsaso Contreras ezker hegalekoak. Bestalde, lehen mailan Realak galdu egin du Valentziaren aurka (0-1). Iraia Iparragirre lasarteoriatarrek ez du jokatuko partida.

Añorgatarren partidako lehen zatia nahikoa parekatua izan zen, eta ez ziren gol aukera gehiegirik egon. Bigarren zatian iritsi zen gola, 65. minutuan. Hortik aurrera, zenbait aukera izan zituen Mulierrek. Baina partida amaitzear zegoenean sartu zuen berdinketaren gola.

Erregional preferente maila

Regionaleko Preferenteko mutilek oraindik ez dute hasi liga, baina Larramendi txapelketa ari dira lehiatzen. Joan den astean 0-1 galdu zuten Euskaldunaren aurka.

Denboraldiko azken zaldi lasterketak jokatuko dituzte

Zaldi odolgarbien erakustaldia egingo dute larunbat goizean, eta ondoren bost lasterketa egingo dituzte

Txintxarri

Hipodromoak aurtengo denboraldia itxiko du larunbatean. Goizean ekingo diote zaldi lasterketen probari, baina aurretik zaldi odolgarbien erakustaldia egingo dute; zaldi arabiarak eta espainiarrak ikusi ahalko dira 11:00etatik aurrera. Programa ofiziala 11:35ean hasiko da. Guztira, bost sari jokatuko dituzte. 13:35ean hasiko da eguneko azken lasterketa.

Joan den astean ere aukera egon zen hipodromoan zaldi lasterketak ikusteko. Araeta


Sagardotegiko Sari Nagusia jokatuko zuten orduan, eta bost lasterketa ikusi ahal izan ziren.

Lehenengo lasterketan, Erresuma Batuko *Ababol* zaldiak irabazi zuen. Bigarrenean, berriz, *Arguero* izenekoak. Hirugarren lasterketa zen garrantzitsuena, sari nagusiak banatzen zituena. Eta Irlandako zaldiak izan ziren nagusi, lehenengo hirurak herrialde horretakoak izan baitziren. Laugarren lasterketan Frantziako *Lurayan* izan zen nagusi, eta, azkenekoan, berriz, Irlandako *Ciudadela*.

ZORION AGURRAK



Uxue
12 urte jadanik!! Muxu potolo asko etxekeon partez!



Iker
Zorionak aita, ama eta Saioaren partetik! Ongi pasa zure egunean.




Unai
Mende laurdenean gauza asko bizi daitezkek, baina bizitza osoa oraindik aurretik daukag.



Fran eta Nerea
Ibilbide berri honetan, hoberena opa dizuegu.



Uxue
Zorionak potoli!!



Enara
Zorionak Enara!
Disfrutatu zure 15 urte polit horiek!! Muxu asko familiaren partez!



Uxue
Zorionak printzesa zure zazpigarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiaren partetik!



Naiara eta Arantxi
Zorionak bikote!! Kontuz, ez juerga gehiegi egin!! Ttakuneko lankideen partetik!!!



Imanol
Zorionak eta muxu pila!! Oso ondo ospatu eguna guraso, Richar, Itziar, Pablo eta Maiteren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurra eta *Bidali zure zorion agurra* formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 08	GANDARIAS-URIBE
Larunbata, 09	DE MIGUEL
Igandea, 10	DE MIGUEL
Astelehena, 11	ORUE
Asteartea, 12	DE MIGUEL
Asteazkena, 13	LASA
Osteguna, 14	GIL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUJONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Alboka Abesbatzaren ikasturte hasiera

Datorren ostegunean, hilak 14, Alboka Abesbatzak 2017/2018 ikasturteari hasiera emango dio. Ahotsak berotzen hasi eta meriendatxo batekin emango dio hasiera proiektuz beteriko ikasturteari. Entseguak, beti bezala, astelehen eta ostegunetan izango dira 20:00etatik 21:30era Arantzazuko Amabirjinaren elizaren azpiko lokalean. Alboka Abesbatzak 15-55 urte bitarteko lasarateoriatar guztiak gonbidatzen ditu entseguetara gerturatu eta probatzera. Ez da beharrezkoa musika hizkuntza jakitea. Informazioa gehiago, 657 651 269 zenbakian edo junta@albokaabesbatza.com helbidean eskuratu dezakete interesatuek.

BiyakBat elkarteko bidaietan lekua

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak urrian eta 2018ko maiatzean egingo dituen bidaietan izena emako aukera dagoela jakinarazten du.

Urriaren 16tik 25era Badajoz eta Jaenera joango dira elkarteko kideak; 2018ko maiatzaren 7tik 14ra Mediterraneoan zeharreko bidaia egingo dute. Informazio gehiago elkartearen egoitzan eskura daiteke.

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, irailaren 25ean, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Eusko Ikaskuntzako beka

Eusko Ikaskuntzak 2017-2018 ikasturterako bi beka aurreikusi ditu Master Amaierako proiektuentzat. Gaiak: Gazteen harreman sareak euskararen sozializazioan eta Euskararen erabileraren aldeko motibazioak gazteengan. Informazio gehiago Eusko Ikaskuntzaren web orrian.

SUDOKUA

		5	7		8	4		6
	8	7		5				
6				4			8	7
1	6				5		7	
	5	4	9				2	3
			2			6		5
3				1				2
8			5	2	6		4	
	2	9			7	1	6	

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALMENTA
Etxebizitza salgai. Usurbil. Duplexa Kalezarren salgai; Aizparrenea etxea, 176 metro karratu (120 eta 56). Garajea 50 metro karratu eta terraza 9m. Igogailua eta fatxada berriua. Oso argitsua eta bista onak. 359.000 euro Telefonoa: 679 002 101

ALOKAIRUA

Etxebizitza alokatzen da Sasota auzoan. Bi logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 526 766

LANA

ESKAITZA
Esperientzia duen zerbitzaria behar da taberna batean goizez lan egiteko. Telefonoa: 631 062 689

ESKAERA

Interna bezala eskaintzen dut neure burua. Orduka lan egiteko prest nago. Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Telefonoa: 671 763 558

Ostalaritza lanak, haur edo pertsona adinduen zaintza lanak edo etxeko lanak egingo nituzke. Telefonoa: 631 166 377

Zaintza lanak (haur edo pertsona adinduak) eta

etxeko lanak egiteko pertsona eskaintzen da. Ostalaritza ere lan egingo nuke. Telefonoa: 619 355 819

Adineko pertsonak edo haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo ostalaritza lan egiteko prest. Telefonoa: 676 188 411

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko (etxean eta ospitalean ere bai). Asteburuetan, jaiegunetan

zein gauetan lan egiteko prest. 606 661 048 / 943 404 015

BESTELAKOAK

ALOKAIRUA
Garaje marra alokatzen da Zubieta plazan. 943 372 066.


ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO:
Txintxarri erredakzioan
943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzaileak

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,
Martin Vicioso, Lorena Lujanbio
eta Adrian Garcia.

Publikitatea

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Seguroola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi.

Informatikoa

Axier Aztiria.

Administrataria

Nerea Garziarena.

PUBLIKITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA
BAINO LEHEN.

OSTIRALA 08

LASARTE-ORIA Festak

Virgen de Guadalupe Extremadura etxeak, Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko festa asteburua ospatuko du.

18:00etan: 'Oaintxe in deu'txarangaren emanaldia.

18:30ean: Extremadurako produktuekin pintxo-potea.

20:00etan: Extremadurari buruzko diaporama.

20:30ean: Manantial Folk, Makulu Ken, The Northagirres, Paolo Solo dj.

21:00etan: Extremadurako 'kaldereta'.

USURBIL Kalejira

Jauzi! Antzerki Egunak iragartzeko kalejira egingo dute Kaxkoan barrena. Bertan arituko dira Lasarte-Oriako Dantzarinak. *Usurbilen, 19:30ean.*

LARUNBATA 09

LASARTE-ORIA Festak

Virgen de Guadalupe Extremadura etxeak, Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko festa asteburua ospatuko du.

02:00etan: Extremadurako 'migak'.
10:30ean: Pintura lehiaketa, 2KN kafetegian.

12:30ean: Extremadurako meza, Extremadura etxean, 'Ecos de Monfragüe' taldeak lagunduta.

14:00etan: Herri bazkaria, paella, Jaizkibel plazan.

15:00etan: Karaokea.

17:30ean: Txokolatada haurrentzat.

18:00etan: JalguneExtrem, 'El carretín' jotarekin.

21:30ean: Bazkideen afari ofiziala, elkartean.

00:00etan: Gau festa herrikoia, 'Ibai berriak' taldearekin.

USURBIL Ikastaroa
Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak antolatuta, 'Sagarraren heldutasun analisiak. Etxean sagardoa egiteko hastapenak' ikastaroa eskainiko dute Aitor Etxeandiak eta Egoitz Zapiainek. Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da, eta 15



LASARTE-ORIA Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko festak

Lasarte-Oriako 'Virgen de Guadalupe' Extremadura etxeak, Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko jaiak ospatuko ditu asteburuan. Atzo eman zioten hasiera. Iluntzeko 19:00etan egindako bandera igotze ekitaldiarekin. Askotariko ekintzak izango dira igandera bitartean lasarteoriarrek gozatu ahal izateko. *Igandera bitartean, Extremadura etxean.*

euro ordaindu beharko dituzte interesatuek.

Potxoenean, 09:00etatik-13:00tara.

IGANDEA 10

LASARTE-ORIA Festak

Virgen de Guadalupe Extremadura etxeak, Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko festa asteburua ospatuko du.

12:00etan: 'Duende', 'Gitanillas' eta 'Zambra' taldeek emanaldia eskainiko dute.

14:30ean: Herri bazkaria; Extremadurako eltzekaria.

17:00etan: Bola joko txapelketa.

18:00etan: Donostiako Extremeña etxeko 'Guadalupeko Ama Birjina' koru eta dantza taldearen emanaldia.

20:00etan: Jaien bukaera eta bandera jaitziera.

DONOSTIA Giza-Katea

'Gipuzkoa bizirik osasunaren alde! Errausketarik ez! Osasuna ez dago salgai' aldarripean, giza katea egingo da Alderdi Ederretik, Kotxako hondartzaraino. *Donostian, 11:30ean.*

ASTEARTEA 12

LASARTE-ORIA Zine zikloa

Lasarte-Oriako Bizikidetzak Taldeak antolatutako 'Bakea,

bizikidetzeta eta memoria' zine zikloaren baitan, 'Izarren Argia' ikusentzunezkoak gozatu ahal izango dute herritarrek. Saturrarango emakumeen kartzelan, Espainiako Gerra Zibilean gertatutako ankerkeriak kontatuko ditu filmak.

Antonio Merceron, 19:00etan.

OSTEGUNA 14

LASARTE-ORIA Zine zikloa

Lasarte-Oriako Bizikidetzak Taldeak antolatutako 'Bakea, bizikidetzeta eta memoria' zine zikloaren baitan, 'Oinatz galduak: 80. hamarkada' dokumentala ikusteko aukera izango da. Jarraian, solasaldia ere izango da. *Antonio Merceron, 19:00etan.*

USURBIL Kale ekintza

Usurbilgo txoko ezberdinetan, hainbat kale ekintza ikusi ahal izango dira. Daltonak taldearen 'Lapur depresiboak', Muxurbilen 'Gure heroiak'. Gorka Zubeldia eta Eñaut Gantxegi transfugek 'Opor politikoak' izeneko lana eskainiko dute. Alde batetik bestera joateko translazioan, musikaren laguntza izango da, musikariek ere pieza bereziak joko dituzte (hauek ere usurbildarrak izango dira). *Usurbilen, 19:00etan.*

ZINEMA

USURBIL

URBIL

It

Ostirala: 16:00, 17:00, 18:00, 19:15, 20:45, 21:30, 22:00, 23:30, 00:30.
Larunbata: 16:00, 17:00, 18:00, 19:15, 20:45, 21:30, 22:00, 00:30.
Igandea: 16:00, 17:00, 18:00, 19:15, 20:45, 21:30, 22:00.

Black Sabbath "The End of the End"

Ostirala: 20:30.
Larunbata: 20:30.

Igandea: 20:30.

Barry Seal: El Traficante

Ostirala: 16:00, 18:05, 20:05, 22:00, 00:25.
Larunbata: 16:00, 18:05, 20:05, 22:00, 00:25.
Igandea: 16:00, 18:05, 20:25, 22:00.

El Otro Guardaespaldas

Ostirala: 16:45, 19:45, 00:50.
Larunbata: 16:45, 19:45, 00:50.

Emoji: La

Ostirala: 16:45, 19:45.

película

Ostirala: 16:05, 18:40, 20:30.
Larunbata: 16:05, 18:40, 20:30.
Igandea: 16:05, 18:40, 20:30.

La niebla y la doncella

Ostirala: 15:55, 22:20.
Larunbata: 15:55, 22:20.
Igandea: 15:55, 22:20.

La torre oscura

Ostirala: 00:45.
Larunbata: 00:45.

Rey Arturo: La leyenda de Excalibur

Ostirala: 22:25, 22:25.

Ostirala: 22:45, 00:30.

Larunbata: 22:45, 00:30.
Igandea: 22:45.

Tadeo Jones 2: El secreto del Rey

Verónica

Ostirala: 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Larunbata: 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Igandea: 18:20, 20:30, 22:40.

El otro lado de la puerta

Ostirala: 22:25.
Larunbata: 22:25.
Igandea: 22:25.



LABURPENA

It

Zuz.: Andy Muschietti. **Herr.:** AEB (2017). **Gidoilariak:** Cary Fukunaga, Chase Palmer, Gary Dauberman, Stephen King. **Aktoreak:** Bill Skarsgård, Jaeden Lieberher, Finn Wolfhard. **Iraupena:** 135 minutu

It

80. hamarkada da Maine estatuko Derry herrian. Bertan, 7 umek osatutako talde bat bizi da; 'El clan de los perdedores!' ezizenez ezagunak dira, eta ikastetxean, gainerako ikasleekin sortzen diren arazori aurre egin beharko diete egunero.

Euren bizitzak ordea, ezusteko bira bat emango du bat-batean. Ezusteko zenbait heriotza gertatu dira udaran, eta mehatxu handi batek harrapatuko ditu taldeko gazteak. Herria ere erabat beldurtuta bizi da une horretatik aurrera.

Egoeraren aurreran, gaztetxoek indarrak batu, eta hiltzailea bilatzeari ekiten diote, eta halako batean, hilketak izaki gaizto batek egin dituela jabetzen dira; pailazoz jantzitako Pennywise izeneko munstro sadiako bat da hiltzailea.

Gai izango ote dira gazteak, euren beldurraz elikatzen den munstroari aurre hartzeko?

Andres Muschietti, Stephen King egilearen It nobelari oinarrituta egin du ikusentzunezko lan hau, eta izuan oinarrituta daude lan horiek biak.

KOMIKIA



PUBLIZITATEA

30
urtez
zuekin

BERRIA!
HABÈren titulo
ofizialak euskaltegian
bertan lortzeko
aukera

UDAL EUSKALTEGIAK
euskara ikaslea

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

2017-2018 EUSKARA IKASTAROAK

MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 1ETIK 15ERA

Izena epe barruan ematen baduzu, 10 kuotatan ordaintzeko aukera.
DIRU-LAGUNTZAK: %85! Baldintza bereziak gazte eta langabetuentzat. GALDE EZAZU

IKASTAROAK:

- AURREZ AURREKOAK: Maila guztiak astelehenetik ostegunera. Txandaka ibiltzeko aukera.
- ON LINE

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

- Hizkuntz eskakizunak eta HABÈren maila guztiak.
- Titulu homologoak: OSAKIDETZA, IVAP, HEZKUNTZA, ERTZANTZAn balio dutenak.

Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus - www.lasarte-oria.eus (administrazioa>udala zure zerbitzura). **BULEGO ORDUTEGIA: 09:00-19:00**

Emaitza buelta bat zure munduari euskararekin 2017-18

**ONDO
iBiLi!**

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatekoak
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

AGENTZIAK

- Udaleko euskaltegia
- Munterri-AEK euskaltegia

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
 - 1.- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2.- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3.- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez %85eko asistentzia eta gutxienerako aprobetxamendua gaitutia.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

Informazio gehiago
Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus